

# BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 217. alea - 2017ko apirila



**Korrika, pausoz pauso  
Euskara, eskuz esku**



## JOXEAN GALDONA AIZPURUA

HORTZ-SENDAGILEA  
Odontologia orokorra,  
kirurgiak eta inplanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea  
Tel.: 943 192 819  
20820 Deba

RAIKETAK S.L.

# SAGARMIÑA

Hondartza, 3-4 behea - Apartado, 31  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel/Fax: 943 192 249  
Mugikorrak: 629 639 685 / 629 641 940  
sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com

# haizea

estetika

Tlf. 943 029 607  
Iturkale 22. 1 eskubia  
sarrera Zesterokua plazaatik

**50 URTE**

## BURU - ZURI

Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23  
Tel.: 943 191 034  
20820 DEBA

kutxabank  
hemen  
eta orain **k**

Hazitik  
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA  
telf.: 943 02 99 63  
e-mail: hazitik@gmail.com

# Calbeton

JATETXEA

Agustín  
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platerra  
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

# L.A.

## LARRAMENDI ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Mobila: 670411786  
Mobila: 607453357  
e-mail: larranaiak@gmail.com

ARTZABAL AUZOA  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

# Ignacio Zuloaga Institutua Eibar

# Arte Batxilergoa

## Aurrematrikula

## Maiatzaren 2tik 12ra

# ARTE BATXILERGOA

## A eta D ereduetan



# AURKIBIDEA

04

## GUTUNAK

“Erabakitze eskubidea eta Debarren Ahotsa”,  
“Ez gara erraldoiak, haize errotak baizik”

07

## ELKARRIZKETA

Haitz-haundi elkarte artistikoak 25 urte betetzen ditu aurten

08

## ERREPORTAJEA

*Gernika*, gerraren kontrako ikur bilakatu den koadro baten 80. urteurrena

10

## IRUDI BILDUMA

Korrikaren 20. edizioak utzitako hainbat pasarte iruditan jaso ditugu

14

## B. GAZTEA

Sare sozialei buruzko hitzaldia, elkarrizketa Jon Osari, inkesta...

## Urteko batzarra egin du Zuhatza Euskara Elkarteak

Zuhatza Euskara Elkarteak martxoaren 31n egin zuen Urteko Batzar Orokorra. 2016ko ekimenen balorazioarekin eta balantze ekonomikoarekin eman zitzaion hasiera batzarrari. Eta, ondoren, aurtengo egitasmoez, aurrekontuaz eta elkartearen funtzionamendu berriaz aritu ziren bazkideak.

Aurtengo bazkide kuota berdin mantentzea erabaki dute (25 euro urtean) eta,

besteak beste, elkarteko zuzendaritza batzorde berria onartu da. Itziar Arana izango da presidentea, Ina Oiartzabal ordezkatzuz, eta Terese Larrañaga arituko da presidenteorde lanetan. Koldo Aperribai idazkaria eta Iñaki Elosua diruzainaz gain, lau bokalek osatuko dute batzordea: Idoia Aulestiarte, Jon Amutxastegi, Joseba Escudero eta Izaro Aulestiarte.



Elkarteko bazkideek etxean jasoko dute batzarraren inguruko buletina.

BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83  
Aldizkariaren e-maila:

[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)

Elkartearen e-maila:

[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

ARGITARATZAILEA

**Zuhatza**  
Euskara Elkarteak Deba

LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hezkuntza Politikarako Salburuordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

### Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarteak

### Erredakzio taldea eta kolaboratzaileak:

Nagore Dorronsoro, Xabier Laka, Ina Oiartzabal, Koldo Aperribai, Lukax Dorronsoro, Izaro Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite Rodriguez, Gilen Garcia, Eider Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane Aizpurua, Haika Aizpurua, Nekane Goikoetxea, Mattin Urbiet, Mikel Aizpurua, Errima Frustratuen Kluba, Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

**Koordinatzailea:** Izaro Aulestiarte

**Azaleko irudia:** Ander Salegi

**Publizitatea:** Joseba Escudero eta Koldo Aperribai **Tlfnoa.:** 943 19 13 83


**Logotipoaren diseinua:** Iñaki Elosua **Maketazioa:** Leire Rubio

**Inprimategia:** Euskalinpri **Tirada:** 1.400 ale

**Lege gordailua:** SS-246-2009 **ISSN** 2171-7656

### OHARRA:

*Berriketan-ek* ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskatu Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara

## Ez gara erraldoiak, haize errotak baizik

Dakizuenez, bi urte pasatxo igaro dira Itziar Auzo Udala abiatu zenetik. Urteurrenaren aitzakian, jendarte multzoa elkartu ginen, Debako Udaleko ordezkariak barne, hitzaldi, musika eta mokadu artean. Bertan ginenok ez genuen garraztasun zantzurik sumatu, giro lasaian burutu zen ekitaldia. Elkarlanerako deia nagusitu zen gure aldetik, baita Eusko Jaurlaritzako sailburuordearen hitzetan ere. Horren lekuko da martxoko *Berriketan*-en azaltzen zen argazkia. Hilabete eskas honetan, auzo udala tentsio-gune bilakatzeko ez dakigu zeintzuk diren benetako arrazoiak. Debako Udal Gobenuak (Debarren Ahotsa eta EAJ), prentsan ateratako artikuluan, herriko aurrekontuak blokeatzearen errua leporatzen zigun, besteak beste. Horren ondotik entitate txikiarekin adostu gabeko "hitzarmen" bat ezartzeaz gain, Auzo Udalarri dagozkion aurrekontuak alde-bakarreko erabakiz onarrarazi dizki-

gute. Debako EAJ alderdiak ere kontraktasuna adierazi du, auzotarrok eratutako Auzo Udala jomugan jarritz.

Oldarraldi honen ondoren, harri-durari eutsi ezinik, zera adierazi nahi dugu: ez gara erraldoiak, haize errotak baizik. Gure erroten hegal birakariak onurak besterik ez dituzte ekarri inguru hauetara, egundaino iritsi ez ziren zerbitzuak martxan jarritz, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak kudeatuz eta herritarren inplikazioa bultzatuz. Bi urte hauetan ez gara arerio bila ibili, ez eta balizko arerioen aitzakian gure ezintasunak estaltzen saiatu ere. Ez gara erraldoiak, aspaldi jabetu ginen gure neurri xumeaz; aldiz, ondo ezagutzen ditugu auzotarren premiak eta horien arabera eginak genituen 2017ko aurrekontuak; Debako Udalak gure gainean ipini dituenak ez ditu behar horiek asetzen. Izan ere, jakineko partidak sortuak genituen proiektu zehatz batzuei aurre egiteko, eta ez dira inon

agertzen. Izendatutako partidarik gabe ez dago diru-laguntzarik. Zilegitasun osoz eta babes zabaleko arauzko prozeduratik eratutako antolaketa zalantzan jartzen da, auzotarrei baliabideak murrizten dizkien aurrekontu batzuek erabiltzera behartuz.

Ahalmen juridiko propioa duen erakundea izanik, auzolanean eta musu-truk, gobernantza berri baten bidetik abiatu garen heinean, errespetua eta elkarbizitza aldarrikatzen dugu. Gure eskuduntza, betebeharrak eta ordenantzak Foru Dekretu batean daude jasota, Foru Aldundiak babestu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Epaitegiak arrazoitutako oinarriak dira, inori kalte egiten ez diotenak. Nahikoa da, ez gara erraldoiak, haize errotak gara.

*Xabier Laka*  
(Auzo Udal talde eragileko kidea)

## Larrialdian euskaraz

Bizitzaren gorabeherak tarteko, duela gutxi larrialdietara deitu eta Donostiako Ospitalean bukatu genuen. Larrialdia larrialdi, lasaitasuna eta poza sentiarazi zidan artatu gintuzten mediku, erizain zein auxiliarrak euskaraz egiteko aukera eman izanak.

Kasuan kasu, gehienek euskaraz eman zizkiguten argibide guztiak eta, euskaraz erantzun ez arren, guk euskaraz hitz egiteko trabarik ez zigun ipini Mendaroko larrialdietako taldeak. Hori gutxi ez eta, kortina artean, denbora luze joaten den tartean,

beraien artean euskaraz ari zirela, lan hizkuntza euskara zutela konturatzea musika lasaigarria eta pozgarria izan zen niretzat une hartan.

Hala ere, gure asteburuko abentura ez zen Mendaron bukatu; ambulanzian Donostiara eraman gintuzten eta han ere euskaraz ba al genekien galde-tu ziguten; guk baietz!, eta erizainak "primeran, mintzapraktika egiteko aukera izango dut zuekin!". Donostian Intentsiboko medikuak ere euskaraz egin zigun eta baita UCIIko mediku eta erizainek ere.

Hori horrela, egun oso luze eta nekagarri baten buruan goizaldera iritsi nintzen etxera, galdera bat burutik kendu ezinda: nork dio ezin dela eguneroko bizitzako esparru guztietan euskaraz egin? Guk lehenengo hitza euskaraz egiten badugu, ziur besteak ere gustura erantzungo digula!

Gure esku ere badago Osakidetzan jakinaraztea gurekin zein hizkuntza erabiltzea nahi dugun; nik eman diet nire aukeraren berri ambulategian, eta zuk?

Itziar Arana Aizpurua

utitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko.  
ara: [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) edo [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com).

## Erabakitze eskubidea eta Debarren Ahotsa

*Berriketan* aldizkariaren otsaileko aleak argazki ederra zekarren, Gure Esku Dago dinamikaren alde herritar eta ordezkari ugari elkartzuz Debako plazan. Apirilaren 2an, 1979tik gaur arteko alkate eta zinegotziak elkartzuz ziren berriz ekimenari babesa eskainiz. Harritu egin banau ere, pozgarria da batean zein bestean herritar eta ordezkari desberdinen artean Debarren Ahotsa agrupazioko kideak ikustea, horrelako ekimen zabal eta garrantzitsuarekin bat eginez.

Izan ere, erabakitze eskubidea ez da bakarrik Euskal Herri mailako aldarrikapena, edota komenientziazko argazkia. Egunerokotasunean eta geure inguruan koherentziaz praktikatu beharreko ariketa politikoa baizik.

Gure Esku Dago ekimenak jarri du

mahai gainean erabakitze eskubidearen eztabaida. Oinarri demokratikoen kontzientzia piztu du jendartean, eta goraka doan bolada eragin du. Baina izan ditugu lehenago erabakitze esperientziak, maila txikian. Desberdina izanik ere, Itziarko Auzo Udalaren eraketa aipatuko nuke gurean. Bere gorabehera eta guzti, bai Gipuzkoako Foru Aldundiak eta bai Gure Esku Dago mugimenduak azpimarratutako prozesua, hain zuzen ere.

Denboran atzera eginez, gogoan ditugu Debarren Ahotsak hauteskunde kanpainan jaurtitako hainbat mezu, biztanleen hautu zintzoaren emaitzak umiltasunez onartu ordez, ebidentziak desitxuratu eta gerora oinarririk gabeko frogatu diren alarmak piztuz herritarrengan. Behin Udaletxera iritsitakoan ere gauzak ez dira

asko aldatu, eta bi urteren ondoren Udal Gobernuak egoskor dirau, legea bete beharrenez obligazioan, baina benetako zilegitasunik aitortu gabe oraindik Itziarko Auzo Udalari.

Esango nuke jarrera hauek ez datoze la guztiz bat erabakitze eskubidearen filosofiarekin. Hala ere sinistu dezagun aro berri batean sartuak garela eta, aurrera eginez pixkanaka normaltasunaren eta elkarlanaren bidea nagusituko zaigula gure herrian ere, gatazkak gainditzeko borondatean. Gauzak honela, maiatzaren 7ko galdeketa emaitzarik hobereana opa dut Debako zein Itziarko mahaietan, jai giroan parte hartzeraz animatuz herritar guztiak batera. Erabakitzeraz goaz!

*Eneritz Tambo Lazkano*

---

## Kale duinak

Beldur naiz gauez bakarrik.  
Beldur naiz kale bat ilunetan denean.  
Beldur naiz parrandatik bueltatzean.  
Beldur naiz, beldur naiz, beldur.

Azken urteotan, emakume sentitzen garenon eztabaidagai nagusietako bat izan dira beldur sentiarazten gaituzten egoerak. Eta horren harira, *“argizatuta gabeko kaleak”* kontzeptuaren inguruko lanketa asko egin dira. Kale hauek, emakumeok segurtasunik gabe sentitzen garen gunek dira. Ilunak edo bakartiak izan daitezkeelako. Segurtasuna, ordea, kontzeptu subjektiboa da oso.

Baina segurtasuna kontzeptu subjektiboa izateaz gain, bada nabarmendu den beste fenomeno bat: *“-kale ilunak ez dira seguruak? Argizta ditzagun”*. Ez, ez ditzagun gauzak hala nola egin. Izan ere, badakigu herri eta hiri askoren kale eta

parkeak argindarrez josi izanak muzin egin diela ingurumenaren beharrei. Eta ez, ez dezagun ahaztu iluntasunak ere baduela bere xarma. Leku guztiek ez baitute Iberdrolaren elektrizitaterik behar.

Arazoak, ordea, berean dirau. Emakume sentitzen garen pertsona asko beldur gara, bai ilun dauden gunetan baina baita argizatuta dauden gunen askotan ere. Eta gure herrian kale seguruak nahi ditugu, hirigintzan ere emakume sentitzen garenon ikuspuntua txertatzea nahi dugulako. Baina ez dezagun ahaztu argiztapenak ez duela zertan segurtasuna eman.

Hortaz, hausnarketara gonbitea luzatu nahi dizuegu. Nola egin genezake herri seguru bat, leku ilunen xarma mantenduz eta ingurumena zainduduz gehiegizko argiztapenik gabe?

Honez gain, ez ditugu emakumeontzako izango diren kale seguruak soilik

nahi. Emakumea *“biktima”* bezala ikusi eta aztertzen dugu beti eta honek larritzen gaitu. Seguruak eta duinak izango diren kaleak guztiontzat baliagarriak izango baitira; emakume sentitzen direnentzat, gizon sentitzen direnentzat, haurrentzat, genero identitate gabekoentzat, mugimendu zailtasunak dituztenentzat... Non dago gakoa?

Bitartean, uda honetan, hainbat herritako hormetan idatziriko esaldiak dakarzkigu:

*“Etixerako bidean ez zaitut ausart nahi, aske nahi zaitut”*

*“Ez dut eskua poltsan sartuta eraman nahi, giltzak ukabil amerikar gisa jarrita”*

*“Ez dut tente eta azkar ibiltzerik nahi, ia korrika”*

*“Ez dut haserre aurpegiarekin kaletik joan nahi”.*

*Debako Talde Feminista*



## Badator Galdeketa!

Jada ez gaituzue ikusiko herriko plazan sinadurak batzen, lehen erronka horri erantzun genion. 700 sinadura inguru lortu ditugu. Jendeak galdeketa parte hartu nahi duela garbi utzi du.

Erabakitze eskubidearen inguruan, ordea, ekintza desberdinak antolatu dira herrian eta antolatuko dira oraindik. Idatzitxo hau irakurtzen duzueneko baietz gai izan bi edo hiru izendatzeko. Adibidez: Zumba saioa plazan, DebaRockek antolatutako kontzertua, arte erakusketa Agirre jauregiko erakusketa gelan eta baita Korrikan parte-hartzea ere.

Guztiak erabakitze eskubidearen alde, ahalduntzearen alde, elkarlanaren alde... Baina, ez dira guztiak bukatuta egongo! Adi! Oraindik asko egongo baita egiteko! **Galdeketa eguna, maiatzaren zazpia.** Ilusio handiz prestatzen ari gara, ikaragarria da zenbat jende hurbiltzen ari den lanerako prest, ilusioz, umore onez. Denok helburu bakar bat, denok ilusio bera.

Galdeketaaren aurkezpena egin genuenean, adierazten genuen erabakitzeko eskubidea txoko guztietara barreiatu nahi genuela. Oraindik ere garaiz gaude denon laguntzaz gehiago zabalteko.

Guztiongana iritsi nahi dugu, batzuek azalpenak emateko erraztasunak ditugu, beste batzuei zaila egiten zaigu; azalpenetan galtzen gara. Beraz, zalan-tzarik gera ez dadin, irakurri ondo beheko koadroa.

16 urteik gorako herritar guztiak gaude gonbidatuta galdeketa parte hartzera. Antolatzaileok seriotasunez eta giro alaian galdeketa parte hartzera gonbidatzen zaituztegu. Gogoratu parte hartzea dela garrantzitsuena. Erakutsi dezagun herritarrok antolatuta gauza handiak egin ditzakegula.

Erabaki egingo dugu!

Lapari



Ander Salegi

### M7ko galdeketa (labur-labur)

#### Zein da helburua?

Erabakitzeko eskubidearen aldeko indarrak batzea, galdeketa bidez.

#### Zertarako?

Erabakitzeko eskubidea oinarritzeko eskubidea dela eta gauzatzea posible dela erakusteko.

#### Nork parte hartu dezake? Zein dokumentu aurkeztu behar du?

1999ko maiatzaren 7a baino lehen jaio (16 urte) eta Deban erroldatuta dagoen edonork parte har dezake galdeketa.

Honako dokumentu hauekin joan naiteke bozkatzera:

- NAN, bertan Deban erroldatuta zaudela agertzen bada.

- NAN eta errolda agiria, Deban ez zaudela erroldatuta agertzen bada.

- EHNA eta Deban erroldatuta zaudela adierazten duen agiria.

- Atzerritarrek, argazkidun edozein agiri ofizial (gida baimena, pasaportea...), errolda agiria eta osasun txartela.

#### Zein da galdera?

Nahi al duzu egungo Euskal Herriaren estatus politikoa aldatu?

BAI EZ

Eta, hala balitz, nahi duzu Euskal estatu independente bat?

BAI EZ

#### Noiz izango da?

Maiatzaren 7an (igandea) galdeketa

mahaiak goizeko 9:00etan irekiko dira eta arratsaldeko 20:00etan itxi.

#### Non izango da?

Foruen plazan eta udaletxe azpian egongo dira galdeketa mahaiak jarrita (edozein mahaitan bozkatu ahalko da).

#### Eta M7an ez banago?

Aurre bozka. Apirilaren 22an: 12:00-14:00 eta 19:00-21:00. Apirilaren 23an: 12:00-14:00. Udaletxe azpian (Foruen plazan).



ekodenda,  
dietaetika,  
belardenda

**sasoi**ko

ZERBITZUAK:

- \* Fisioterapia: teknarterapia (INDIVA)-drenaje linfático -lesioak -...
- \* Gimnasia hipopresiboak
- \* Dietista
- \* Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoi@hotmail.com

Zesterokua Plaza  
Tel.: 943 029 376  
Bazkariak: 13:00 / 16:00  
Aitariak: 20:00 / 23:00

**Bordatxo**  
JATETXEA

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak

## Haitz-haundi, 25 urte pintzel eta kolore artean



**Haitz-haundi elkarte artistikoak 25 urte betetzen ditu aurten eta ekimen bereziak egingo ditu urtemuga ospatzeko. Horren adibide da, besteak beste, estalitako pasealekua lau mural koloretsuz apaindu izana. Urtemugak aitzakia polita eman digu elkarteko kideekin *Berriketan* pixka bat egiteko.**



**Elkartek 25 urte betetzen ditu aurten. Noiz edo nolatan sortu zen taldea?**

1992ko apirilean izan zen. Ordura arte Kultur Elkarteok antolatzen zizuten ikastaroak eta, haiek bukatzerakoan, bertan geunden kideok behar bat ikusi genuen eta mugitzen hasi ginen, elkarte artistiko bat sortuz. Lokalak Kultur Elkarteak utzi zizkigun eta gaur egun horiek erabiltzen jarraitzen dugu.

Izena aukeratzeko hainbat proposamen izan ziren, baina *Haitz-haundi* iruditu zitzaigun aproposena, Debako ikono bat delako eta, gainera, kide guztiok hainbat aldiz pintatu dugun txoko bat delako. Erregistroan izena onartu zigiten, eta gure logo ere bihurtu zen hala.

**Nolako izan da orain arteko ibilbidea? Zer balorazio egiten duzue?**

Oso ona eta aberasgarria izan da. Taldea oso irekia da eta giro ezin hobea dugu gure artean.

**Pintura izan da beti landu duzuen diziplina edo esparrua?**

Bai. Eta urte hauetan zehar teknika berri asko joan dira agertzen eta modu batean edo bestean horiek lantzen joan gara.

**Urte hauetan asko aldatu al da elkartearen funtzionamendua?**

Ez da gehiegi aldatu behar izan, baina talde dinamiko bat den neurrian, momentu desberdinetara egokitu gara.

**Zer ekimen nagusi burutzen dituzue urtean zehar?**

Urte guztian zehar ikastaroak antolatzen ditugu heldu eta gaztetxoentzat eta, horrekin lotuta, gabonetako eta kurtsu amaierako erakusketak egiten ditugu, besteak beste. Herriko margolari baten koadro bat ere zozketatzen dugu urtero.

Pintura lehiaketa desberdinak ere antolatzen ditugu haur, gazte eta helduentzat. Eta, bestalde, irteerak ere egiten ditugu museoetara edo interes desberdineko lekuetara, ikustera edo guk geuk pintatzera.

Horrez gain, herriko beste elkartekin ere kolaboratzen dugu.

**Nola dago osatuta Haitz-haundi elkarte gaur egun?**

Urteetan zehar hainbat irakasle izan ditugu marrazketa, akuarela, oleo eta teknika ezberdinak erakusten. Orain, azken urteetan, Jose Ignacio Treku dugu

eta pazientzia handiz hartzen gaitu. Irakasleak 22 bat ikasle izaten ditu kurtsoko, eta urrian hasi eta maiatzean bukatzen dugu... denetarik gaude hor! *kar-kar*.

Gaztetxoak 35 dira eta bi taldetan egoten dira Osioko lokaletan. Isidor Lamarianok eta Maite Iriondok lan bikaina egin dute beraiekin hasieratik; eskertzekoa benetan.

Bazkideak 50 bat gara, afizio honen inguruan bilduta guztiok. Eta, martxa eramateko, zortzi kide gaude aukeratu batzorde bezala funtzionatzeko.

**Zelan ospatuko duzue urtemuga?**

Paseo estalian jarri diren lau muralak denon artean margotu ditugu herriarentzat, guztiok gure esker ona eman nahian. Eta, apirilaren 22an, Haitz-haundi elkartearen eguna ospatzeko asmoa dugu bazkide guztiok. Argazki emanaldia, kantuak eta bazkari eder batekin ondo pasatzea da helburua.

**Beste zerbait nabarmendu nahi duzue?**

Beti gogoratuko garela hasieratik, urte hauetan zehar gure inguruan ibili diren guztiok. Eta denei mila esker beren laguntzarengatik, lehen eta orain.





**AUKERA**  
INMOBILIARIA

[www.aukera-inmobiliaria.com](http://www.aukera-inmobiliaria.com)  
Aukerarik onena!

943 12 13 95





## **GERNIKA,** gerraren kontrako ikur bilakatu den koadro baten 80. urteurrena

1937ko apirilaren 26an, arratsaldeko 16:45ean, azoka eguna zela, Alemania naziko Kondor Legioaren hirutik hamabira arteko Heinkel eta Junker 52 hegazkinez osaturiko eskuadrilek, Italiako abiazio legionarioaren laguntzarekin eta Mola jeneralaren onespenez, Gernika bonbardatu zuten. Hiri kokorrra 250 kiloko bonbek txikitu zuten bitartean, su-bonbek egin zuten gainetarakoa arratsalde eta gauean zehar. Iluntzeko 19:45ean alde egin zuen azkeneko hegazkinak. 1.645 hildako aitortu zituzten ofizialki eta 889 zauritu. Paradoxikoki, Junta Etxea eta Gernikako Arbola, euskal askatasunaren ezaugarriak, salbatu egin ziren. Otxandio (1936-6-27an), Elgeta eta

Durango (1937-3-31n) eta Eibar (1937-4-25ean) ere bonbardatu zituzten ehunka heriotza eraginez, eta... Malaga, Bartzelona, Valentzia eta Madril ere bai; baina, Gernika izan zen, Pablo Picassoren koadroari esker, berehala gerraren kontrako aldarrikapenik handiena bilakatu zena.

*Gernika*-ren historia 1937ko urtarrilean hasi zen, Espainiako Gobernu Errepublikanoak Pablo Picassori koadro handi bat eskatu zionean, Parisen 1937ko Nazioarte Erakusketan Espainiari zegokion pabiloirako. Maiatzaren 1ean hasita, Parisko rue des Grands Augustins 7 zenbakiko teilatuean, dozenaka hastapen-zirriborro egin zituen malagarrak, oihal zurian behin

betiko lanari ekin aurretik. Maiatzaren 10ean hasi zen margotzen bere lan handia -3,51 x 7,82 metroko olioan-, eta ekainaren 4an eman zuen amaitutzat.

Gertakizun burugabe eta asaldagarri baten ikaragarritasuna aldarrikatzen duen margolana da. Asko dira margolariak adierazi nahi duena, sinbologia eta garrantzia aurkitzeko oihalaren zentimetro bakoitza arakatu dutenak. Egileak inoiz ez zuen koadroaren sinbologiak ezer esan; beraz, ondorengo hau azterlari multzo batek osatu duen collage bat da:

**Lau emakume** dira protagonista oihalean: zerura deiadarka ari dira bi; eskuinekoa sugarrek eragindako oina-zeagatik, ezkerrekoa semea galdu duelako samenez. Beste biak eskuinetik

**"Naturaz gaindiko argazki handi bat da *Gernika*" (Jose Bergamin poeta eta intelektual errepublikar espainiarra)**



Gernika herria, bonbardaketaren ostean.



*Gernika* koadroaren bozetoa (1937ko maiatzaren 9koa).



margolanaren erdirantz doaz: bata, oihal gailurreko bonbilla-eguzkiari darion argiak erakarria dirudenez, eta, gertatzen ari denarekin izu-ikaratua, garrasika; bestea, zaldira hurbiltzen doa kriseilu batekin, eta berdin izan daiteke errepublika edo gizadia, besterik ezin eta, basakeriari begira izu-ikaraz beste erremediorik gabe.

**Zaldi** lantzakada batek hiltzorian utziak, gerrak uzten dituen errugabeko biktimak irudika ditzake; bere aurpegi, lepo eta gorputz bihurrikatuez sufri-mendua adierazten du. Bere mingainak aiztoa ematen du, oinazerik zorrotzeta adieraziz.

**Usoa** bakearen ikurra da, baina apurtua dauka hego bat eta mokoa zabalik, garrasika bezala; beraz, gerra dela medio bakea eta askatasuna nola moztu diren sinboliza lezake.

Zezenaren buru ondoan dagoen **hegaztia** zeru aldera karrankaz ari da, alboetako emakumeak bezalaxe.

**Zezenak**, itxura batean, zelatan eta mehatxari, faxismoa irudika dezake; baina, inguruan gertatzen ari denarengatik aztoratua ematen du; beraz, herria irudika dezake. Picasso bera ere izan daiteke, munduari gerraren berri ematen.

**Gizon** irudi bakarra eskultura apurtu bat edo gudari bat besoa eta lepoa moztuta dauzkana izan daiteke, oina-zez garrasika. Kasu honetan, bere ideiegatik hilak gertatu direnen irudia litzateke, beso batean ezpata apurtua, porrot ezaugarria daramala, baina lore bat, itxaropen ikur, ere badaramala.

**Argia** zaldi gainean, margolanaren gailurrean; lanpara batek bonbilla darma barruan eta, honen inarrek eguzki itxura ematen diote. Beraz, ez da erraza gertakizuna barrukoa ala kanpokoa den antzematea; baina, gaua da noski. Gertatzen ari denaren berri eman beharra irudika dezake.

Irudia zehaztu gabeko toki batean kokatua dago, munduan nonbait; gainera, bonbardaketan, larrialdi egoeran, babesik gabe, engainatua izatearen sentsazio sumina nabari da. Artelanaren ezker aldeak barrunbe bat dela ematen du, sabaitik zintzilik lanpara batekin, edo hegaztia gainean duen mahaiarekin; bitartean, horma-irudiaren eskuin aldera, arkitekturak dira nagusi, kanpotik ikusiak; etxeak sutan eta irudiak

*Minotaurumaquia*  
grabatua  
(Picasso, 1935).  
Bi urte beranduago *Gernika*  
egiteko balio  
izan zion  
artistari.



leihoetatik irteten. Leioa edo atea, irudi aro surrealistan, kanpotik barrurako, edo alderantzizko, ibilbideak dira, eremu eta munduak harremanetan jar-tzen dituztenak.

Beltzen, grisen, urdinen eta zurien **polikromia**. Kolore horiek agertzen dira soilik oihalean eta izaera berezia ematen diote margolan bikainari. Ikuskera "ilun eta zakarrak", Picassok zioen bezala, koloreari muzin egitea zekarren azpian. Askoren iritziz, hau du bere lanik bikainena, ahalik eta kolo-re gutxien erabiliz egina.

**"Gernika"n ez da ageri bonbarrik, hegazkinik, ez da gerra hau edo bestea, gerra guztiak dira, edozein gerra motaren ukapen ikurra eta euskal askatasunaren ikurra eta bakearen ikonoa**

### **Gernika-ren arrakasta berantiarra**

Hasiera batean ez zuen jendearen kritika faltarik izan: Eusko Jaurlaritzatik, nahiago baitzuen hark Euskal Herri baten bonbardaketari buruzko margolana Aurelio Arteta bezalako euskal margolari batek egin izan balu -Artetak ezina agertu zion, ordea, Biarritzetik Mexikora alde egiteko unean zegoelako-; ezkerretik, koa-droak militantzia sena falta zuelako; eta, Le Courboisier arkitektoaren esanetan, artelana ulergaitza zen eta publiko-ak bizkarra ematen zion.

Erakusketa bukatu ostean, jendearen onarpena goraka joan zen; koadro ibiltari bilakatu zen, 10 herrialdetan eta 40 hiritan barrena, New Yorkeko MoMan atsedean hartu eta, handik denbora batera, arte kritikariaren gorespena jaso zuelarik. Erabateko gerra kontzeptuaren irudikapenik ospetsuena izate-raino heldu zen eta bere askatasun, duintasun eta eskubideen aldeko borrokan ari den herri baten garrasia.

*J.L. Albizu eta L. Dorronsoro*



Jose Luis Zumeta margolari gipuzkoarraren *Gernika* artelana.





# 20. Korrika

Apirilaren 5ean pasa zen Korrika Debatik. Uste baino azkarrago iritsi zen lasterketa Sasiolara, baina korrikariek ongi-etorri polita egin zioten. 30 lekuko aldaketa baino gehiago eginda, Joseba Sarrionandiak idatzitako mezua eskuz esku ibili zen gure artean ere eta, herria nahiko arin zeharkatu ostean, Mutrikurako bidea hartu zuen gero.

Aurrez Korrika Batzordearen ekimenez egindako lanak eman du bere fruitua:

Euskarak batuta, denok batera Korrika!

Gustura, esker onez gaude beste behin ere. Zorionak eta mila esker denoi!

*Zuhatza Euskara Elkarte*



## “Erbeste” antzezlan Kultur Elkartean

“Erbeste edo saiheats baten aldarrikapenak” antzezlan ikusteko aukera egongo da maiatzaren 12an (ostirala), 22:00etan, Kultur Elkartean.

Anodino Teatroa konpainiaren obra hau Poltsiko Antzerki Sorkuntza lehia- ketaren aurtengo edizioako komedia irabazlea izan da. Mikel Fernandinoren testua oinarri hartuta, Aitor Fernandino eta herrian ezagun dugun Getari Etxegarai antzezleak dira protagonistak.

Debako Udalak eta Kultur Elkarteak elkarlanean antolatatu dute hitzordua.



## Kontzertu berezia eskainiko dute Debako Musika Bandak eta jazz laukoteak

Datorren maiatzaren 19an, ostiral gauean, Debarren Eguna dela eta, Debako Musika Bandak kontzertu berezi bat eskainiko du. Debako Musika Bandarekin batera Iñaki Salvador arituko da pianoan, Josu Salegi saxofoian, Pier Bruera baterian eta Chuchi Garcia kontrabaxuan, jazz laukotea osatuz. Kontzertua 22:00etan izango da, Debako elizako klaustroan.

Iñaki Salvador, Donostian jaioa, jazz musika arloan izen handia duen pianista da. Pianista izateaz gain, konpositorea eta moldatzailea ere bada eta zinerako, antzerkirako, telebistarako eta dantzarako musika konposatzen du. Horrez gain, Mikel Laboa, Mikel Markez, Imanol, Javier Ruibal etab... bezalako abeslarien ohiko kolaboratzaile izan da. Euskal Herriko Goi Mailako Musika Eskolako (Musikene) Jazz irakaslea da eta musika garaikide eta jazz irakasle bezala irakaskuntza esperientzia luzea dauka. Bere ibilbidean zehar,



makina bat sari jasotakoa da.

Eskainiko dugun kontzertuan, musika klasikoa, euskal kantak, eta jazz estiloko musiken bertsoiak interpretatuko dira, Josu Salegiren moldaketan eskutik. Eskerrak eman nahi dizkiogu Josu Salegiri jaialdi hau aurrera eramateko egin duen lanagatik.


Beraz, maiatzaren 19an, bertara gonbidatzen zaituztegu, Debako Musika Bandaren eta Jazz laukotearen musikaz gozatzera!

*Debako Musika Banda*

## Dantzari Txiki Eguna




“Dantzaren Nazioarteko Eguna ez zen oharkabean pasa herrian. Lehenbizikoz, Dantzari Txiki Eguna antolatua zen apirilaren 8an eta, eguraldia lagun, ekimen ezberdinez osatutako egitaraua burutu zen. Iruñeako Duguna, Andoaingo Urki eta Mutrikuko Gure Ametza dantza taldeak hurbildu ziren hitzordura: ongi-etorria, kalejira eta dantza jaialdia eskaini zuten herriko dantzariek batera, eta herri bazkaria ere egin zen frontoian. Kulunkalarien eskutik, bestalde, barra klasikoaren erakustaldia egin zen ibaiaren alboko pasealekuan.



# SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



## ASKETA, S.L.

ERAKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

**OFICINAS Y EXPOSICION:**

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: asketa@telefonica.net  
www.asketa.net

**ALMACÉN:**

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

**K21**  
KALITATEA  
Empresa Registrada nº 2 / 05 / 049  
NIVEL 2

# 2017rako aurrekontuak onartu ditu Debako Udalak

Martxoaren 30ean egindako osoko bilkuran onartu zituen Debako Udaltzatzen 2017rako behin-behineko aurrekontuak. Aurten 7.549.392 euroko aurrekontu bateratua izango du, 2016an baino %1,62 gehiago. Aldeko zortzi botorekin onartu zen kopuru hori –Debarren Ahotsako bost eta EAJko hiru–, eta Ehbilduk kontrako bost bozka eman zituen.


Udalaren antolaketa aitzat hartuta, 2017. ekitaldirako aurrekontua lau atal edo partida nagusitan zatituko da: Arte Eskolara 216.000 euro bideratuko dira, Musika Eskola Patronatuak 544.877 euro jasoko ditu, Itziar Auzo Udalak 810.277 euroko kopurua izango du, eta Udalarari 7.202.763 euro dagozkio aurtengo finantzaketaren kudeaketarako.

Aurrera begirako inbertsioetarako



zenbatekoa zehaztu ez duten arren, udal agintariek jakinarazi dute 2017rako hainbat inbertsio aurreikusten dituztela, “beti ere herri osoari onura ekartzeko helburu bakarrekin”. Asmo edo proiektu horien artean daude, adibidez, Santa Katalinako lur saila jabetzan hartzea edo herritarren eskuragarritasuna eta erosotasuna bermatzeko Astillero kalearen zati bat egokitzea. Osio kalearen antolamendua, Aldats frontoiaren sabaia egokitzea eta ur kirolen inguruko proiektuak sustatzea ere aipatzen da inbertsioen artean.

Ondoko helburu hauek ere nabarmen-



du dituzte: Eguneko egoitzan hobekuntza lanak egitea eta STOP Alzheimer proiektuaren jarraipena egitea, herriko elkarte ezberdinekin elkarlana bultzatzea –harremanak sendotu eta proiektu berriak gauzatzeko medioak ipiniz–, “eta, ahaztu gabe, herrian behar gehien duten herritarrei laguntza ematea, hau delako gure politikaren puntu garrantzitsuenetako bat”.

## European jokatu da Emakumeen I. Deba Saria

Amaikak Bat Txirrindularitza Taldeak apirilean antolatutako bigarren hitzorduan emakumezkoak izan ziren protagonista. Emakumeen I. Deba Saria jokatu zen eta hiru kategoriatan aritu ziren lehian: kadeteak, juniorrak eta nagusiak.

Kadete mailan, 39 kilometroko ibilbidea osatu behar izan zuten eta Garazi

Estevez nagusitu zen. Juniorren artean, Izarne Maioz txirrindularia izan zen azkarrena 72 kilometroko proba osatzen; eta, elite eta 23 azpikoen artean Belen Lopezek lortu zuen garaipena.

Taldeka, Lointek Team izan zen garaile eta mendiko sailkapeneko saria Alba Teruelek lortu zuen.



## Carmelo Urdangarinen ikerketa lanari aitortza

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena, Landa Garapena eta Lurralde Oreko departamentuak omenaldia egin dio Carmelo Urdangarinen debarrari, artisautzaren alorrean egindako ikerketa eta dibulgazio lanagatik.

Herri kulturarekin lotutako ibilbide-

an, Urdangarinek 400 elkarrizketa baino gehiago egin ditu artisauekin eta 220 ofizio baino gehiago ikertu ditu. Lan luze eta zabal horrek bere isla izan du hainbat eta hainbat artikulua eta liburutan; ikerlan horren zati batek argia ikusi du “Lanbide Tradizionalak” bilduman; 1996an sortu

zen bilduma hori eta 14. alea argitaratu da berriki.

14. argitalpen hori aurkeztu zen ekitaldi berean egin zitzaion omenaldia Urdangarini. Eskulanean Maisu izendatzen duen diploma eman zion Gipuzkoako Foru Aldundiak.

**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**IGARZA**  
TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197

**IZENBE**

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

# Berriketan Gartea

2017ko apirila  
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerlean Sortua

## Sare sozialetan buruzko hitzaldia Mendata Institutuan



Martxoaren 10ean, 3. mailako ikasleok sare sozialetan buruzko hitzaldi bat izan genuen, Ertzaintzako kide batek emanda. Hitzaldiak hiru orduko iraupena izan zuen eta, bertan, teknologia berriak eta sare sozialek duten arriskuak berri eman ziguten ikasleoi. Era berean, arrisku horiek ekiditeko, honako aholkuak eman zizkiguten:

- Oso garrantzitsua da ulertzea internetez ezagutzen ez ditugun per-

tsonekin gelditzea oso arriskutsua dela.

- Ez eman inoiz internetez datu pertsonalik.

- Ez bidali identifikazio gaitzaketen datuak: izen-abizenak, adina, telefono zenbakia, helbidea, ikastetxea... Ez eman bankuko daturik edo kreditu txartelenak, ez gureak eta ez senitartekoenak, internetez egindako lapurretak ekiditeko.

- Gure identitatea babesteko ezizena erabili, *nicknames* edo alias deiturikoak. Oso garrantzitsua da sare sozialen pribatasun aukerak ezagutzea eta konfiguratzeko.

- Ez publikatu gure aurpegia edota gorputza erakusten duen argazkirik.

- Gure irudia eta ospea babestu, ez elkarbanatu horiek kalte ditzaketen mezuek edo irudiak; internetek aztarna uzten du betiko.

- Ez sinistu interneten ikusten dugun guztia, pertsona askok iruzur egiten dute.

- Ez klikatu ezezagunen mezuen linketan. Eduki desatseginetara biderra gaitzake edo gure ordenagailua kutsatuko duten birusak izan daitezke.

- Guk edo gure inguruko norbaitek mezu erasokorra, mehatxuzkoa edo sexuzko edukia duena jasoz gero, gurasoekin hitz egin.

- Ordenagailuan interneteko arriskuak babesteko programak instalatu: birusak ekiditen dituztenak, ordenagailura ezezagunen sarrera (jackerrak) oztopatzen dutenak, posta desegokiak (spam), espioi programak (spyware), deiak erregistratzen dituztenak (dialers)...

**Eta garrantzitsuenak: egunero sare sozialek deskonektatua egoteko tartea hartzea.**

## Irteera Eureka Zientzia Museora eta Txuri-Urdin Izotz Jauregira



Pasa den martxoaren 9an, Mendata institutuko hirugarren mailako ikasleak Eureka Zientzia Museoa ikustera eta Txuri-Urdin Izotz Jauregian

patinatzerara joan ziren.

Debatik goizeko 8:30ean irten ziren. Donostiara iritsi eta berehala joan ziren Eureka Zientzia Museora. Bertan, bi taldetan banatu ziren: talde batek museoa ikusten zuen bitartean, bestea esperimendu batzuk egitera joan zen.

Taldeek hainbat gune ikusi zituzten museoan: giza-gorputza nolako den azaltzen duena, txakurraren barne-egitura nolako den azaltzen duena, ilusio optikoen gunea, zientziarekin jolasteko gunea, gure indarra eta malgutasuna neurtzeko

gunea... Eta, begirale baten laguntzaz, esperimendu batzuk ere egin zituzten: makromolekulak, kristalkobalenteak, metalak eta ez-metalak aztertu zituzten.

Ekintza hauek bukatu ondoren, Planetarium-era joan ziren eta, bertan, energia berriagarriari buruzko bideo bat ikusi zuten.

Arratsaldean, bazkaldu ostean, Txuri-Urdin Izotz Jauregira joan ziren eta bertan patinatzen egon ziren. 15:00etan bueltatu ziren Debara.

Ikasle guztiek primeran pasatu zuten irteeran.



## Jon Osa

*“Zazpi urte nituenetik nabil lehiaketetan parte hartzen”*

Hilabete honetako elkarrizketa laugarren mailako Jon Osa ikasleari egin diogu. Igeriketan aritzen da Jon, aspalditik, eta kirol horren inguruko galderak egiteko aukera izan dugu oraingoan. Hona hemen guk egindako galderak eta berak emandako erantzunak:

**Noiz hasi zinen igeriketa egiten?**

Bost urterekin hasi nintzen igeriketa praktikatzen.

**Zer dela eta hasi zinen?**

Erakargarria iruditzen zitzaidalako eta gus-tuko nuelako aukeratu nuen kirol hau.

**Non praktikatzen duzu?**

Eibarrera joaten naiz.

**Lehiaketetan parte hartzen al duzu? Noiztik?**

Bai, zazpi urte nituenetik nabil lehiaketetan parte hartzen.

**Txapelketaren bat irabazi al duzu? Zein?**

Bai, Euskadiko bi txapelketa irabazi ditut eta Gipuzkoa mailan hirugarrena naiz.

**Zein da gehien gustatzen zaizun estiloa?**

Gehien gustatzen zaidana bizkar-estiloa da.

**Zenbat egunetan entrenatzen duzu astean?**

Aste barruan egun guztietan aritzen naiz, egunean bi ordu eta laurden egiten ditut entrenatzen.

**Gogorra egiten al zaizu?**

Beno, batzuetan gogorra egiten zait, baina beste batzuetan ez hainbeste.

**Bertako kideekin gustura ibiltzen al zara?**

Bai, oso ondo konpontzen naiz haiekin.

**Entrenamenduz gain, asteburuetan ere praktikatzen al duzu igeriketa?**

Bai, larunbatetan ere aritzen naiz.

# Inkesta

## Aste Santua: oporrak, erlijioa...

Apirileko inkestan Aste Santua hartu dugu hizpide. Institutuko ikasleei galdera batzuk egin dizkiegu euren sinismen, ohitura eta asmoen berri jakin nahian:

- 1.- Zuretzat zer da Aste Santua?
- 2.- Zerbait berezia egiten duzu garai honetan?
- 3.- Bidaiarik egiten al duzu? Hala bada, nora?
- 4.- Zure familiakoak erlijiozaleak al dira? Ohitura erlijiosoak betetzen dituzue etxean?
- 5.- Prozesioak ikusten al dituzu?
- 6.- Ba al dakizu zergatik ospatzen den Aste Santua?
- 7.- Deban egiten al da zerbait berezia? Ekintza erlijiosoren bat ospatzen da, adibidez?

### Roke Etxeberria



- 1.- Oporrak.
- 2.- Oporretara joaten naiz.
- 3.- Bai. Aurten, adibidez, Santoñara eta Alemaniara (ikasbidaian).
- 4.- Ez. Ez.
- 5.- Ez.
- 6.- Ez.
- 7.- Ez dakit.

### Galder Gorroñe



- 1.- Erlaxatzeko eta disfrutatzeko oporrak.
- 2.- Bai, oporretara joaten naiz.
- 3.- Bai, Nafarroara.
- 4.- Denetik dago. Ez.
- 5.- Ez.
- 6.- Ez.
- 7.- Ez. Ez.


### Elata Oartzabal




- 1.- Gustura egoteko oporrak.
- 2.- Ez.
- 3.- Ez. Inora ere ez.
- 4.- Nagusienak bai, baina ni ez.
- 5.- Noizean behin ikusi izan ditut.
- 6.- Erlijio katolikoarekin zer ikusia duen gauza bat da, baina ez dakit zehazki zer den.
- 7.- Ez dut uste.

## Denbora-pasak

### MARRAZTU ESKUINEKO ALDEA



### LOTU PUNTUAK



#### ASMAKIZUNEN ERANTZUNAK:

Nire aitak amari  
-Lau feliatu  
-Kalian gora kalian behera  
-Pintxo Pintxo

laguntzaileak:



babesleak:



Debako Udala



### Jare Bengoa



- 1.- Jesusen berpizkundera ospatzeko jaiak dira.
- 2.- Bai. Familiarekin elkartzen naiz.
- 3.- Bai. Luz-era joaten naiz eskiatzera.
- 4.- Bai. Bai.
- 5.- Ez ditut ikusten.
- 6.- Bai.
- 7.- Bai. Meza dagoela uste dut.

### Intza Etxebarria



- 1.- Familiarekin eta lagunekin disfrutatzeko oporrak dira.
- 2.- Bai, oporretara joaten naiz.
- 3.- Bai, baina ez dakit nora.
- 4.- Denetik dago. Ez.
- 5.- Ez.
- 6.- Ez dakit.
- 7.- Uste dut prozesioa dagoela.

### Derese Pancorbo



- 1.- Jesusen berpiztea ospatzeko jaiak.
- 2.- Ez dugu ezer berezirik egiten.
- 3.- Bai, Errioxara.
- 4.- Bai.
- 5.- Bai, amaren etxean.
- 6.- Bai.
- 7.- Ez. Ez.

### Endika Ruiz



- 1.- Erlijioarekin lotura duten oporrak dira.
- 2.- Lo gehiago egiten dut.
- 3.- Normalean ez, lagunekin gelditzen naiz Deban.
- 4.- Bai, baina ez dira mezatarara joaten. Ez.
- 5.- Ez, behin bakarrik ikusi dut.
- 6.- Ez dakit, baina uste dut Jesus gurutzatu ondoren berpiztu zelako ospatzen dela.
- 7.- Ez dut ideiarik ere.


### Haritz Alberdi



- 1.- Opor batzuk.
- 2.- Ez.
- 3.- Noizean behin, edozein tokitara.
- 4.- Ez. Ez.
- 5.- Ez.
- 6.- Ez.
- 7.- Ez dakit.

EGILEAK: Eider Perez, Nerea Sanz eta Intza Sudupe

## DOMINOA



## EZETZ ASMATU!

Lau euskal abesti dituzue hemen, whatsapppeko emotikono bidez aurkeztuak. Ia guztiak asmatzen dituzun!



## TXISTEA



- Ume batek bere lagunari:
- Nire aitak ez du hilea moztu hamar urtean!
  - Zer da ba? Artista bat al da?
  - Ez, burusoila.



### Prentsa talerra 2016-2017

Urko Azkoitia, Maria Perez, Maite Ramos, Nerea Sanz, Intza Sudupe, Eneko Arriola, Jone Gomez, Janire Lopetegui, Eider Perez, Irune Ruiz, Maider Almoriza, Ibai Bernal

Koordinatzailea: Tomas Ramos

# AGENDA

## APIRILAK 28, OSTIRALA

-18:00. Elgoibarko Kolumbarioaren esperientziari buruzko **hitzaldia**, Iñaki Odriozolaren eskutik (Elgoibar 1936 - Ahaztuen Oroimena elkarte).

-19:30. **Azken ostirala**. Euskal preso eta iheslari politikoaren eskubideen aldeko elkarretaraztea, Foruen plazan.

## APIRILAK 29, LARUNBATA

-12:00. **Neska-mutilen arteko pala jaialdia**, erabakitzeo eskubidearen alde.

## MAIATZAK 1, ASTELEHENA

-**Langileen Nazioarteko Eguna**.

## MAIATZAK 6, LARUNBATA

-12:30. **Paella lehiaketa**.

## MAIATZAK 7, IGANDEA

-Erabakitzeo eskubidearen aldeko **herri galdeketak**. Ikus informazio gehiago aldizkari honen 6. orrialdean.

-Debako Xtrem Orbea **triatloia**.

## MAIATZAK 12, OSTIRALA

-22:00. **Antzerkia: "Erbeste edo saihets baten aldarrikapenak"**, Kultur Elkartearen.

## MAIATZAK 14, IGANDEA

-8:30. **Mendi irteera**, Burdin Kurutz M.T. eta Luzaro ikastetxeak antolatuta. Izpegi-Iparla-Bidarrai.

## MAIATZAK 19-21. DEBARREN EGUNA

\***Maiatzak 19, ostirala:**

-22:00. Debako Musika Banda eta Jazz Laukotearen **kontzertua**, Santa Maria elizako klaustroan.

\***Maiatzak 20, larunbata:**

-Goizean, **haur margo lehiaketa**.

**Kalejirak** herrian zehar.

-18:30. **Danborrada**.

-00:00. **Erromeria**.

\***Maiatzak 21, igandea**

-9:00. **Entzierra eta ondoren sokamuturra**.

-11:00. **Meza eta ezpata-dantza** San Roke ermitan.

-13:00. **Aurrekua**, Gure Kai taldearen eskutik.

-18:00. **Erraldoien alardea**, plaza zaharrean.

-19:00. **Erromeria**, Foruen plazan.

## Liburuaren Eguna

Liburuaren Nazioarteko Eguna apirilaren 23an ospatzen dela eta, Deban ekimen ezberdinak egingo dira egun horren bueltan. Hilaren 27an, adibidez, Rafael Bravok "*Cuerpo y alba*" liburua aurkeztuko du Kultur elkartearen, 19:00etan. Ordu berean, baina hilaren 28an, Gloria Fuertesaren oroi-menez kafe tertulia literarioa egingo da.

## Arte erakusketa

Maiatzaren 7an egingo den herri galdeketaren harira, Laparik antolatutako arte erakusketa izango da ikusgai Agirre jau-regian, apirilaren 25etik maiatzaren 7ra bitarte. Orduetgia: astelehenetik ostirale-ra: 19:00-21:00/larunbat eta igandeak: 12:00-14:00.

## Hazien Festa

Maiatzaren 13an (larunbata) Hazien Festa ospatuko du Debanaturak, elkartearen 10. urtemuga dela eta. Eguna osoko egitaraua antolatu du. Informazio gehiagorako, deitu elkartera (695783656) edo kontsultatu egitaraua Facebooken.



*Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik*

Nafarroa Plaza • Tfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA



Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA



SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Sokagin, 2 bajo Apartado 3  
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
urlo@urlosi.net

Higiezin Zerbiztuak  
Aholkularitza  
Higiezin Agentzia  
Komunitateen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak



**Uzuri**  
optika audio

www.uzurioptika.com

**ZURE ENTZUMENA  
ZAITZEN**



Ostolaza, 7  
20820 DEBA  
Tel: 943192192

RPS:183/12



**ZAINZAKO BOTIKA**  
Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: **apirilak 28, 29, 30.**  
**maiatzak 8, 9, 10, 11.**

Burgoa Zuazo:  
**maiatzak 12, 13, 14, 22, 23, 24, 25.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

**DEBAKO BOTIKAK**

**ZALDUEGI: 669 262 201**  
**BURGOA ZUAZO: 667 338 890**

Larunbat goizetan beti bat irekita:  
ZALDUEGI: apirilak 28 eta maiatzak 6  
BURGOA ZUAZO: maiatzak 13 eta 20

**9:30 - 13:30**



**Argazkilaria**  
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: [andersalegi@gmail.com](mailto:andersalegi@gmail.com)

Tlf: 685 703 843



English Academy  
**NORTH STREET ENGLISH**

Telf. 675 714 031 - Ifar kale, 15 - Deba  
[rhorton4@yahoo.es](mailto:rhorton4@yahoo.es)

**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206  
Tel. faxo: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
**20820 DEBA (Gipuzkoa)**  
[mikeliturgintza@euskalnet.net](mailto:mikeliturgintza@euskalnet.net)  
[www.mikeliturgintza.com](http://www.mikeliturgintza.com)

**A D**

**ASESORIA DEBA C.B.**

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617  
Eduarne: 669 895 619

[asesoriadeba@asesoriadeba.com](mailto:asesoriadeba@asesoriadeba.com)  
[www.asesoriadeba.com](http://www.asesoriadeba.com)

HONDARTZA, 2 - BEHEA Tel.: 943 192 127  
20820 DEBA (GIPUZKOA) Fax: 943 192 482



etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA  
Lersundi 1. behea 20820 - DEBA  
Tel: 943192263  
[www.atarideba.com](http://www.atarideba.com)

**Lizaso**  
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21  
Tlfnoa: 943 19 27 29



Jarri zure publizitatea  
Berriketan aldizkarian!

**Zuhatzza**

943 191 383  
[berriketan@zuhatzza.com](mailto:berriketan@zuhatzza.com)





**URDAITEGIA  
AITTOLA  
HARATEGIA**


Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA

**GENOVEVA**  
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818




Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)



Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

**LENTZERIA**

**Azoka**

**MERTZERIA**

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



**Bar LOREA**

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



Elgoibar BHI  
www.elgoibarbhi.eus

## 2017-2018 Batxilergoako aurrematrikulazioa: Maiatzaren 2tik 12ra

### BATXILERGOA (BH)



#### GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

- GIZARTE ZIENTZIAK
- HUMANITATEAK



#### ZIENTZIAK

- OSASUN ZIENTZIAK
- ZIENTZIAK ETA TEKNIKA



#### ARTEA

- ARTISTIKO MUSIKALA

### ATE IREKIAK:

**MAIATZAREN 2AN, 18:00ETAN,  
INSTITUTUKO ARETOAN (MEKA ERAIKINA)**

943 748 397  
013431aa@hezkuntza.net

